—¿Paris-ondokua ete-az?
—¡Oi, ez! Uŕunekua nok.
—¿Ordezkarija?
—Ez...
—¿Txaunburuba?
—Ez...
—¿Lekaidia?
—Ez...
—¿Zer eta-az, ba?

Gudozte-jauparija nor dan ageŕtzeko ezpai dago, ta bat-batez... gudarijari eskuba luzaturik dirautsa:

—...¡Gotzalia!
—...!!!

LEGENDIKA'TAŔ IÑAKI'k euzkeralduta.

## ¡AŔEN, LORE EDEŔA!

Txoritxuak poz-abestiakin iragaŕik
ta ortze urdiñak edeŕturik,
bere apainduri guziyaz yantzita,
Oŕi alaya etoŕi da,
Zeuri, Miren Neskutz edeŕa,
maitasunezko eskeintza egitera.

Donokiko Loria Zu zeranez,
etoŕi da ornidurik lore edeŕez;
loŕiak landa ta zelayak,
loŕiak ibaŕ ta mendiyak;
lorez du ludiya apaindu,
ta oyen Bakaldun zu aukeratu.

Lorez daude zure jargoyak,
lorez baita zure ondiyak,
lorezko burestun eta zortak,
Miren edeŕa gauŕ zuretzat;
loŕiak dizkitzute gogo-zintzoak
beren biotzetan bildutakoak.

Nik, bakaŕik ditut zuretzat
arantza gogoŕ eta zoŕotzak;
erein ditu gaiztakeriak
nere baratzan laŕ ta sasiak;
¡azketsi, Ama! azketsi eidazu
zeugandik ¡aŕen! ez ni bidaldu.

Garbitu nai det nere baratza
naiz izan lan gogoŕ ta latza,
bañan naizelarik aul indaŕgea
zeure beaŕ naiz Ama nerea,
¡atoz maitia! ¡atoz nigana!
¡onetsi zazu gauŕ nere lana!

Eta garbiturik zure eskeŕez,
¡atoz Amatxo! ¡atoz doayez!
ai Lore edeŕa maite-maiterik
zure aziya nigan zabaldurik,
egin zazu baratza edeŕ bat nere biotzian
bertako Bakalduna Zeu izan zaitian.

TENE.

Socrates'ek bein eruan ebazan etxera eŕiko andiki batzuk beragaz apaltzen.

Kantipa bere emaztia laŕi eguan, eurentzako geŕtau eban aparija ona ta gozua ez-ete-zanaren bilduŕez.

—Ez ardurarik ixan—esan eutson Socrates'ek.—Etoŕiko diranak notin zinduak ba-dira, pozik geratuko dira. Zinduak ezpa-dira, ezkara alegindu biaŕ eurak poztuteu.

Madrid'eko andera batek 1604'kaŕen urtian ei-eukan Ameriketako pera bat, 31.000 ogeŕleko balijo ebazana.

Lenengo urtebetian, enparau urtetan baño ariñago azten ei-dira gixaemiak.

## MAȐE ZAUT

Ama Euzkadi laztana,
Guretzat soŕtu ziñana,
Maŕetasun bat
Daukot zugana
Bijotzian,
Amaitzen
Eztana.

Ixan diŕuzu semiak,
Onak... baŕa be dongiak;
Zu osatuko zaŕube
Sabin'en jaŕaitzaliak
Eta ez aŕotzaliak.

E'TAŔ'K.

Espetxian (kartzelan):
—I ¿zegaitik ago emen?
—Usin-egitiaŕen.
—¿Usin egitiaŕen? ¡Bai, zera!
—Bai, ba, oŕexagaitik. Lotan yeg[illegible]on bati sakelak garbituten asi nintzakijonian, usin-egin nayuan, itxaŕtu zun bera... ta emen naukak.

1.265'kko. Oŕila-8'gn. Dante idazlari (eskriŕore) ospetsuba, *Divina Comedia*'ren egilia, Florenzia'n jayo zan.

1.814'gko. Oŕila-14'gn. Kostituziño kadiztaŕa kenduta, beŕezaŕi ziran Bizkaya'ren Lagijak.

*Abraham* ixenak *askoren aita* esan gura dau; *Amadeo'k Jaungoikua maite egik*.

Beŕgara'ko *Elosua* mendijak 709 metro daukaz. Oyaŕtzun'go *Ayamendi'k* 668.


## AŔANTZALIAK ¡¡E... UP...!!

*Ilero edo loru onen eta bikañenetakuak,*
*Nai dan lodieran: 0, 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7 ta 8'kuak.*
*Iñon ere ez merkiago. Nun nai ere ez obiago.*
*Eskatu lenbailen, ba, bestela batere gabe zera.*

AŔASATE'TAŔ IMANOL.
MOTRIKO-GIPUZKOA.

**Rousse ta lagunak**

*Ledesma-15'ka, 1458'g. uŕutizkiña (telefonua)*

Ikatz eta patata-bildegi andijak. Batez-be ereŕeko patatak.

**"La Cervecera del Norte" -- Bilbao**

**Munich, Orija ta Argija garaŕduak**